

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Hezkuntza ekosozialaren dimentsio akademikoa

### Egilea

Amets Viola Martínez

### Gradua

Educación Social

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

4. Kalitatezko hezkuntza

11. Hiri eta komunitate jasangarriak,

13. Klimaren aldeko ekintza

### Laburpena

Azken urteetako mundu mailako ikerketa guztiak ondorio berdinerara daramate: krisi klimatiko global batean murgilduta gaude. Hori agerian uzten du 1988an Nazio Batuen Erakundeak eraturako Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Panelak (IPCC, 2020). Berotze globalak, berotegi efektuko gasen isuriaren ondorioz eraginak eta elkarmenpekotasuna duten beste hainbat fenomeno (ipar poloetako izotzaren urketa, mendiko glaziarren urketa, permafrostaren urketa eta horrek dakarren arrisku ezezagunak, itsas-mailaren igoera, muturreko fenomeno meteorologikoen hazkundera, bioaniztasunaren galera, itsasoko uraren berotzea eta azidotzeak, animalien migrazio bortxatuak, errefuxiatu klimatikoak, munduaren ekuatorearen basamortizazio prozesuaren areagotzea...) larrialdi klimatikoa aldarikatzen dute (IPCC, 2022; Petxarroman, 2020). Egungo krisi klimatiko ukaezinaren aurrean gizarteak eta estatuek estrategiak garatu behar dituzte datozen ingurumen erronka eta erronka sozio-ekonomikoei aurre egiteko. Izan ere, klima aldaketa, gizadi eta naturaren arteko loturaren haustura baino, beste hainbat gizarte akordioen hausturarekin bat eman da, besteak beste, belaunaldien arteko elkartasuna, gizakien arteko lankidetzeta, langile klase kontzientzia eta abar luze bat. Errealitate hau aldatzeko sortu dira 2030rako Garapen Jasangarrirako Helburuak eta ingurumen hezkuntza, hurrengo belaunaldiak ekosistema hurbilarekin harremantzeko gidalerro etiko gisa (González, 2018). Jasangarritasun kontzeptua 1987an sortu zenean, intrintsekoki kontzeptu horri lotuta agertu zen elkartasun intergenerazionalaren idea, non,

garapen eskema hurrengo belaunaldien beharrak ere kontuan hartu behar zituen (Brundtland, 1987). Hala ere, autore askoren ustez (Alba, Menéndez eta Ramirez, 2004), urte luzeetan zehar garapen ekonomikoak jasangarritasuna ukatu izan du, hazkunde ekonomikoak gizarte garapenaren motor gisa hauteman izan delako. Zientziaren paradigma diziplinabakarrekoak eragin du errealitatearen ulermen sinplista, eta Morinen (2007) arabera, giza zientzietan bakoitzak bere zeregin espezializatuen erantzule izateko joera izatea eragin du eta erantzukizunaren zentzuaren ahultzea izan da kostua, bai eta elkartasuna ahultzearena ere. Eszenatoki honetan agertzen da, ordea, berdintasun, elkartasun eta justizian oinarritzen diren alternatibak, horiek artean, hezkuntza ekosozialarena. Premiazkoa da paradigmaren aldaketa ematea, non, lurraren muga fisikoak errespetatzen diren eta giza bizitzaren zaurgarritasuna aitortzen diren (González, 2018). Honela, garrantzia eman nahi zaio bitzta onari, biziraupenari baino. Iraunkortasunaren edo jasangarritasunaren kontzeptua sortu zen bezala, kontzeptu berriak behar dira, mundu naturalaren eta giza munduaren arteko desoreken arazoari heltzeaz gain, hainbat mugimendu sozial eta politiko inspiratzeko gaitasuna ere izan dezaketenak, egunero zalantzan jartzen dutenak botere nuklearrean eta zientziaren eta teknologiaren aurrerapenen erabilera akritikoan oinarritutako hazkunde ekonomikoa (Morin, 2007). Lan honetan ekosozial kontzeptuaren azterketa bibliografikoa egin da 3 datu baseetan zehar, Dialnet, Eric eta Web Of Science (WOS) eta maila akademikoan hezkuntza ekosozialaren dimentsioa zehaztu da. Bilaketa hitzak ecosocial eta education izan dira eta technology hitza baztertu da. Horrela 98 ikerketez osatutako aurre-lagina sortu da. Bertatik medikuntza arloko ikerketak ere baztertu izan dira, 82 ikerketaz osatzen den lagin behin betikoa lortuz. Emaiza nagusien artean, lehenik eta behin antzeman da korrelazio zuzena dagoela dokumentu motaren eta egiletzaren artean, testuen erdiak liburuak dira, Richard Oaker Peters estatubatuarrak idatzitakoak eta guztiak ere ERIC datu basean argitaratuak izan dira 1981 eta 1999 urte bitartean. 1981ean, Global Horizons: the Center for Applied ECO/Social Studies sortu zen, Amerikako Estatu Batuetan (New Hampshire) espresuki mundu mailako kontzientzia/zabalpena orientatutako heziketa programak diseinatu eta garatzeko helburuarekin, haur hezkuntza mailatik 12. gradura harte (gaur eguneko batxilergo arte, hau da, garaiko oinarrizko hezkuntza osora bideratuta). Aztertutako 44 liburu hauen artean, argitalpen urteari erreparatu gero, testuen %54a 1987a baino lehenago argitaratu zen (zehazki 1981-1987 bitartean), "Gure Etorkizun Comuna" (Our Common Future) txostena argitaratu aurretik, non, lehen aldiz mahaigaineratzen zen "garapen jasangarri" kontzeptua (Brundtland, 1987). Hala eta guzti ere, garapen iraunkorra edo ondoren deituriko garapen jasangarriaren ingurumen hezkuntzaren ereduak aurrea hartu zioten hezkuntza ekosozialari 2000an Nazio Batuen Erakundeak Milurteko Helburuak zehaztu zituenetik eta 2002ko Nazio Batuen Batzar Nagusian (57/254 ebazpena) «Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada 2005-2014» aldarrikatu zutenean. Harez geroztik petersek argitaratutako programa eta gidaliburu guztiak erreferentzia akademiko txikia dute. Gainerako 38 artikuluko zientifikoak ere, aztertu izan dira hainbat irizpideen arabera. Lehenengoa, datu basearena, agerian uzten du gaiaren aldibereko agerraldia aztertutako 3 datu baseetan. Hizkuntzari dagokionez ere, bi hizkuntzen agerraldia aldiberekoa (%50 bakoitza) izan da. Autoretzaren generoari dagokionez, gizonezkoek egindako ikerketak nagusi dira, %44,7ak hain zuzen ere. Emakumeak soilik duen autoretza testuen %31,6 osatzen du eta

gainerakoa, hau da, lagin osoaren laurdena, gizon eta emakumeak batera eginak dira, nahiz eta oro har, emakume gehiago aurkitzen diren autoretza taldean. Honek agerian uzten du nahiz eta hezkuntza arloan emakumeak nagusi diren eta hezkuntza ekosozialak ekofeminismoaren oinarriekin lotura zuzena duen, oraindik ere produkzio zientifikoaren pisu gehiena gizonezkoen esku dagoela. Argitalpen urteari dagokionez, testuen %71,1a 2016tik aurrera argitaratua izan da. Honek agerian uzten du ingurumen hezkuntzaren, eta, zehazki hezkuntza ekosozialaren inguruko interes zientifikoa batez ere 2015ko Parisko Hitzarmenetik aurrera eman dela. Hareago, ikerketa gehienak COVID-19 mundu mailako pandemiaren geroztik argitaratu dira, hain zuzen lagin osoaren %38,5 2020 eta 2021 urte bitartean izanik. Testuen argitalpen tokiari erreparatuta aniztasun handia aurki daiteke, baina batez ere Espainiar jatorriko testuak daude, zehazki testuen %42a. Eredu geografikoki, argitalpen gehien dituzten hurrengoak Ameriketako Estatu Batuak eta Latinoamerikar herrialdeak (bertan Brazil, Venezuela, Costa Rica, Mexiko eta Kolonbiako jatorriak daude) dira, %16ko portzentai berarekin. Eta Europar jatorrikoak jarraitzen dute %13arekin (Suitza, Erresuma Batua, Finlandia eta Italia). Aldi berean, aniztasuna, kakotxen artean hartu beharra dago, izan ere, batez ere iparraldeko herrialde "garatuak" dira produkzioaren emaitza nagusienak, Australia ere, nahiz eta hegoaldean egon munduan influentzia sozio-politiko eta ekonomikoa duten herrialde horien barruan sartzen delarik. Zentzu honetan interesgarria da ez Afrika zein Asiatik ikerketarik ez egotea, behin ere, mahai gainean jarritz produkzio zientifikoaren eredu hegemoniko unibertaria, non, eurozentrismoa, antropozentrismoa eta kapitalismoa nagusi diren. Arlo zientifikoari edo diziplinari dagokionez, hezkuntza arloko testuak dira gailentzen direnak, laginaren %60a osatzen dutelarik. Beste arlo batzuk ere ageri dira, hain zuzen ere, gizarte langintza, filosofia, biologia eta komunikazioa, maiztasunaren arabera zerrendatuta. Ekosozial kontzeptuak dituen oinarri teorikoan adierazpena ere aztertu izan da. Horrenbestez, aztertu diren oinarriak ondokoak izan dira: antropozenoaren kontzientzia, ekofeminismoaren aipamena aldarrikapen ideologiko gisa, ekodependentzia eta interdependentziaren printzipioen babesa printzipio gidari gisa, ekojustiziaren edo ingurumen justiziaren aldarrikapena aldaketarako motor gisa, eta zaintzaren etikaren ulermena. Sei irizpide hauek testu guztietan aztertu izan dira, jarraian ageri diren emaitzak emanez: Aztertutako ikerketen ia erdiak, %44,7ak hain zuzen ere, onartzen du Antropozenoa gizakiak planetan eragindako aldaketak markatutako geologia aroa (UNESCO, 2020), ikerketen oinarria izan behar duela aldarrikapen zientifiko gisa. Ikerketen %36,8 eta %39,5a soilik egiten dute ekomenpeotasun eta elkarmenpeotasun kontzeptuen aipamena, hurrenez hurren. Ekomenpeotasunak lur planeta osotasunean funtzionatzeari erreparatzen diolarik, hau da, naturako izaki guztien arteko menpeotasuna, eta elkarmenpeotasunak gizakien biziraupenerako beste gizakien zainketa eta komunitatearen babesa behar izateari. Ekofeminismoaren presentzia urria, %31,6a alegia. Azterketa gurutzatu bat eginik, ikus daiteke ikerketen egiletza soilik emakumezkoena dela, %31,6koa hain zuzen ere, ikerketen heren batek 2015 urtea baino lehenagokoa dela, eta ikerketen %20a filosofia, biologia eta komunikazio zientzia adarrekoak direla, emaitza hau zerbait azal zezakeen. Ekojustiziaren kasuan, bakarrik ikerketen %34,2ak agerian jartzen du honen beharra edo kontuan hartzeak. Hau alderdi oso garrantzitsua da, izan ere, Giza Eskubideen Oinarri Markoan ingurumen seguru, garbi, osasuntsu eta sostengarria izateko betebeharra aitortzen du, nahiz eta oraindik ere ez den eskubide aitortua (Knox, 2018).

Era berean Andersonek aipatzen du (2008) ingurumenaren justiziaren (environmental justice) helburua garapen iraunkorra periferiatik erabakigarritasunaren erdigunera mugitzea dela, eta hemen ere, nabaria da gai asko periferiatik erdigunera mugitzea eskatzen duela eta hori ez dela islatzen ikerketa guztietan, besteak beste, ipar eta hegoaren arduraren klimatikoaren birbanaketa bidezkoa. Azkenik, zaintzaren etika, maiztasun gutxiarekin agertu den ideia da, lagin osoaren %18,4an, eta agian honen arrazoia oraindik ere zaintzari gizartean ematen zaion konotazioa da, non, gutxietsi egiten den eta esparru erreproduktibo eta pribatura mugatzen den. Beste emaitza harrigarria izan da aztertutako ikerketetan ez dagoela ekosozial kontzeptuaren definizio zehatz bat. Are gehiago, ikerketa gehienetan ekosozial hitza soilik tituluan eta laburpenean ageri da. Honek hainbat zailtasun dakartza eta aldi berean inkognita batzuk planteatzen ditu ere. Zailtasunen artean, ekosozial kontzeptuaren definizioa dago, baina baita ekosozial zeraren edukia zehazteko ere, izan ere, gehienetan gizarte eta natura lotzen dituen edozer laburbiltzeko erabiltzen baita. Zailtasun nagusia kontzeptuaren definitiotik dator, izan ere, definitzen ez dena ez da existitzen. Egindako azterketan, ekosoziala definitu izan da "ikusuntu", "hezkuntza", "filosofia", "ikaskuntza", "bizimodu", "alfabetizazio", "arrisku", "gizarte lan" eta "naturaren kultura" gisa. Amaitzeko, aztertutako lagina praktikotasun irizpidearen arabera analizatu da, hau da, testuaren izaera teoriko hutsa edo erreplikatu daitekeen metodologia, praktika on, esku hartze edo ekintza baten proposamena edo azterketa egiten duen, ekosozial kontzeptuaren presentzia maila (teorian zein praktikan) neurtu nahian. Honen arabera, laginaren %65,8a soilik teorikoa da, eta maila teorikoan aztertzen du ekosozial kontzeptua, bai ikerketak eginez, nola planteamendu eta proposamen teorikoak aurkeztuz. Aldi berean, laginaren %34,2 ingurumen hezkuntza, ekojustizia, iraunkortasuna edo klima aldaketaren inguruan hezkuntza garatzeko proposamen praktiko bat edo gehiago proposatu edo aztertzen du. Honek agerian uzten du kontzeptua ez dela soilik maila teorikoan erabiltzen baizik eta maila praktiko batean ere, kontzeptuaren izaera praxiologikoa mahai gainean jarritz. Aurreko guztiak azaldu ondoren, aipatu ikerketa honen xedea ekosozial kontzeptuaren dimentsioa aztertzea izan bada, xede hau hein handi batean baldintzatuta egon da ekosozial kontzeptuak duen anbiguitasun eta zehaztasun urriarengatik. Ekosozial kontzeptuaren erabilera maila akademikoan ematen bada ere (Muñoz, 2019), ez dago ideia komun eta partekatuta bat hitzak gordetzen duen esanahiaren inguruan, eta horrek azterketa zaila du. Bizi garen une historikoak, kapitalismo suntsikorrak, eurozentrismoak eta androzentrismoa markatutako krisi klimatikoak itzulezineran eraman du gizadi osoa. Oreka ekologiko hauskor honen aurrean, eta horrek dakarren ondorio sozio-ekonomiko imaginaezinak, estatuak eta gizarteak ekintzara pasatzeko beharra ikusi dute. Ekintzara igarotzeko paradigma potentziala hezkuntza ekosozialarena izan daiteke, gorputz akademiko osatuagoa eman ezker. Horregatik, eta amaitzeko, Gizarte Hezkuntza Graduak amaierako lanaren ekarpena hezkuntza ekosozialaren definizio posiblea da: hezkuntza ekosoziala, ekofeminismoaren eredutik elikatzen den hezkuntza iraultzailea da, gizaki eta gizartearen arteko banaezintasuna aldarrikatzen duena, ekomenpekotasun eta elkarmenpekotasun irizpideetan oinarrituz. Eredu sistemikoetan du bere izaera, planetako izaki guztien arteko harreman batean sortzen dituelako bere planteamenduak. Ezagueran oinarritzen den hezkuntza baino, balio etiko unibertsalean oinarritzen da, besteak beste justizia (edo ekojustizia), aniztasunaren errespetua, lankidetzak, zaintza eta enpatia.

## 2030 Agendaren GIH Ekarpinak

Lan honek Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten dien ekarpen nagusia kalitatezko hezkuntzarekin lotuta dago (4.helburua). Gizarte Hezkuntzako Graduko ikasle baten ikuspegitik abiatuta, hezkuntza gizartea aldatzeko tresna eta giltzarria da. Are gehiago unibertsitate testuinguru batean, ukaezina da ezagutzak pertsonen eraldatze prozesuan eta garapenean duen balioa. Horregatik, hain zuzen ere, lan honek hezkuntza arloko eta zehazki ingurumen hezkuntza arloko gorputz teorikoa eraikitzeko ahalegin gisa aurkezten da. Lanaren gaia, hau da, hezkuntza ekosoziala, azken urteetan gero eta ageriagoa den gaia izanik, oraindik ere, kontzeptualizazio teoriko-praktiko baten beharra du, eta lan honen xedea kontzeptualizazio prozesu horri ekarpena egitean datza. Alde batetik euskerazko kalitatezko testu bat osatuz, komunitate euskaldunari gaia gerturatzeko, eta bestetik, ingurumen hezkuntza hobetzeko proposamena eginez. Era berean, landu den beste helburu garrantzitsua hiri eta komunitate jasangarriekin lotuta dago (11. helburua), izan ere, planteatzen den paradigamren garapenak intrintsekoki giza kokaguneak inklusiboak, erresilienteak eta jasangarriak izatera eramaten duelako. Ikuspegi komunitario eta sistemiko batetik habiatzen den hezkuntza ekosozialak, komunitatea ahalduz gain, zaintzan eta elkarmenpeketasunean oinarritzen delako, inklusiboagoak egiten ditu, izakiak ez ezik gainerako bioaniztasuna kontuan izan eta zaintzea aldarrikatzen duelako. Hareago, natura eta gizakiaren arteko dikotomia haustean, biak erdigunean jarriz, komunitateak jasangarriak izatera eramaten du. Hirugarren, Klima babesteko ekintzari ere ekarpena egiten dio (13. helburua), izan ere, nahiz eta aurkezten den lana eduki teorikoa soilik izan, ekintzara igarotzeko oinarriak ezartzen ditu. Horrela, ekintzarako gidalerro moduan erabili daiteke. Hezkuntza ekosozialaren azken xedea mundua aldatzeko esku hartzea baita, Jasangarritasunaren pareko, baina kasu honetan ekintza guztiak, klima aldaketari zein gizakiei onura egiten dietenak kontuan hartzen direlarik, txanpon beraren bi aldeak aitortzen baitira gizakia eta natura. Horrela, proposatzen den lehen neurri urgentea klima aldaketari aurre egiteko, hezkuntza sistemako maila guztietan zehar eta modu transbertsalean ingurumen hezkuntza txertatzea da. Amaitzeko aipatu lan honek egiten duen ekarpen nagusia maila teorikoan geratzen bada ere, lehen urratsa ematen du orain arte ikertu gabeko gaiari eta azken urteetan testuinguru desberdinetan agertzen den ekosozial hitzaren kontzeptualizazioari.